

Juan Aizpitarte ◉ Artista

Luis Candaudap eta Alain M. Urrutia euskal margolariak hautatu dituzte aurtengo 'Goazen Txinara!' beka programan parte hartzeko. Aizpitartek iaz izan zuen Pekinen bere proiektua egiteko aukera.

«Ziur nago Txinan liburu hau best-sellerra izango zela»

Nerea Lizarralde

Iazko udaberrian joan zen Juan Aizpitarte (Donostia, 1974) Judas Arrietaren Pekingo Ma Estudioira. Argazki kamera eskuan hartu, eta Pekingo kaleetan barrena ibili zen. Txinan grafiti bila hasi zen, baina, azkenean, zentsuraren egin zuen topo.

Zein proiektu egin nahi zenuen Pekinen?

Euskal Herria eta Txinako sinbologia tradizionala konparatzea zen nire asmoa. Ikonografia aldeetik badituzte zenbait gauza komunean, eguzki lorea edota bizitzaren lorea, esaterako. Argazki batzuk egin nituen, interesgarriak ziren, baina azkenean beste bide batetik jo nuen. Beste gauza batek bereganatu zuen nire arreta. Espazio publikoko paretak interpretatu nahi nituen komunikazio espazio gisa. Paretan analisi soziologiko moduko bat egitea zen helburua. Zer esaten da, zer estaltzen da, zer egiten da? Gizartearen paretetan irakurri daitekeela uste baitut. Uste nuen hemen bezalako grafitiak izango zirela, baina Txinan grafitiaren historia aurrean daude oraindik. Grafitia Mendealdearekin lotzen dute. Lengoaia hori ez dute oraindik bere egin.

Nolako grafitiak ikusi zenuen?

Kalean galdetuz gero, grafitirik ez dagoela esango dizu jendeak. Baina paretak arretaz eta gertutik begiratzuz gero, pinturaz estalitako pintaketa politikoak zeudela konturatu nintzen. Estalitakoleku horien xehetasunei argazkiak egiten hasi nintzen. Adierazpen askatasuna eta komunikazioaren gainera eztabaidaz haratago, zentsura arte abstraktuarekin nahastu daitekeela konturatu nintzen. Orduan hasi nintzen ondo pasatzen.

Nola jokatzeko zentsurak?

Espazio publiko guztia estaldura sotil batez beteta dago. Pintaketak estali egiten dituzte. Nola estali duten arrastoa ikus daiteke gainera. Bi spray daramatzate gutxienez, eta batzuetan bost ere bai. Egoera oso barregarriak ikusi ditut. Lehen seriean oso gertuko irudiak jaso nituen. *The Grey Wall* izena du. Zuri eta beltzean tapatutako guztia irudikatu nuen bertan. Pintura abstraktuak edo

ta expresionistak direla dirudi. Irudi batzuk mihise gainean ere irudikatu ditut. Azken batean koadroak bezalakoak dira. Koadro bat ikusten duzu, koadro bat dirudi, baina argazki bat da berez, kaleko objektu bat, alegia. Bigarren seriean, plano orokorrak dira, eta kolorea dute: kalea eta hiria gehiago ikusten dira eta bertan dagoen publizitatea, propaganda eta jendea.

«Zentsura moduko bat sumatzen duzu, baina ez dakizu non dagoen, ezta nolakoa den ere»

«Ez dira konturatzen zenbateraino islatzen duten argazki horiek haien egoera»

Espazio publikoaren azterketa egin duzu?

Bai, espazio publikoaz ari naiz. Zentsura da hau guztia. Nik ez nuen inoiz polizia ikusten grafitiak estaltzen. Txinan oharkabean geratzen da hau guztia. Jendeak ez du ikusten. Denboraren joana eta zentsura nahastu egiten dira. Hemen, grafitia desagertarazi egin nahi dute, Txinan, estali egiten dute. Hemen txorroa bota, eta berdina zaie zer zegoen lehenago. Txinan superposizioa

ikus daiteke. Zentsura bada ere, historiagatik bakarrik, aberasgarriagoa da estalia izatea, ezabatu izatea baino.

Zenbait artista txinatarrekin izan zinen Pekinen. Zer iritzi zuten zure lanaz?

Autokritika lo daukate, formateatu egin diete, eta bat batean aktibatu egiten da. Barrea ere eragiten zien... "Zein begirada azkarra duzun!", esan zidan batek. Kritika bat dela sumatzen dute, baina ez dira gai interpretatzeko. Ustekabean harrapatu nituen. Ez dira konturatzen zenbateraino islatzen duten argazki horiek haien egoera. Nik ispilu moduan lan egiten dut. Atzerriarra naizela aprobetxatzen dut eta oso konkretua den gauza bat islatzen dut. Kasu honetan, Txinako paretak. Kanpotik natorren pertsona bat naiz, eta haien etxeko kontuetara gerturatu naiz. Probokazioa gustatzen zait. Eztabaida piztea. Gai hau lo dago. Orain Txinaren ekonomia inguruko albisteak jasotzen ditugu, baina gizartearen gertatzen ari da? Horregatik gustatzen zait bidaiaztea, entzuten duguna benetan horrela den kontrobatzeko. Bidaia honi esker aurreiritzi guztiak uxatu ditut nire burutik. Orohar, oso jende umilla eta langilea dira, baina badira aberats berri eroak ere.

Argazkiak liburu batean argitaratu nahi dituzu.



IRUTXULOKO HITZA

Bai, hala da. Ziur nago Txinan liburu hau best-sellerra izango zela. Zin dagizut. Inoiz aberasteko aukerarik badut, horrela izatea nahi dut. Pentsa, zentsuraren argazki liburu bat saldu eta aberastea... Primerakoa izango zen. Lan honek Txina nolakoa den ulertzeko balio duela uste dut. Metafora bat da. Herrialdean gertatzen ari dena ulertzeko lagungarria.

Baina Txinan izango al zenuke horrela koliburu bat kaleratzeko aukerarik?

Sentipen arraroa nuen Txinan nintzanean. Zentsura moduko bat da

goela sentitzen duzu, baina ez dakizu non dagoen, ezta nolakoa den ere. Hasieran uste nuen kalean geldituko ninduela polizia. Edozein egoeratarako prest nengoen. Egutero husten nuen argazki txartela. Informazio guztia duplikatzen nuen, badaezpada. Azkenean ez nuen arazorik izan. Hori bai, jendea begira geratzen zen. Ez zuten ulertzen zergatik ez nion muntuentuari argazkia egiten, eta bai, ordea, paretak ziztrin bati. Tontotuta nengoela uste zuten.

Esperientziak gozatu al zenuen?

Topera aprobetxatu nuen denbora. Argazki kamera hartu eta Pekinen galtzen nintzen egutero. Metroa hartzen nuen norabidea jakin gabe... Galdu egiten nintzen, nahita. Hasieran gaizki pasatzen dezu. Ezinbestekoak diren hamar hitz txinatarrak ez bada kizkiz. Ingelesekin ez dakienak ez daki, ezta hitz bat ere. Keinu bidez komunikatu behar duzu. Baina tira, taxilari batekin ordu bete egon nintzen hizketan. Hiria eza gutzen nuen heinean landu nuen proiektua. Gauza oso bitxiak aurkitu nituen. Mezu pertsonalak, negozio ilegalak... Lehendabizi nire arreta bereganatzen zuena irudikatzen nuen. Intuizioarekin lan egiten nuen. Eta gero zituztaile batek deskubritzen zuten mezu haietan esaten zutena.

◉ nizaralde@hitza.info



Txinako espazio publikoetako zentsura irudikatu zuen argazki kamerarekin. JUAN AIZPITARTE